

MUNDUKO SAGARDO EZBERDINAK DASTATZEKO AUKERA IZANGO DA

XXV. Sagardo Egunak zerbait berezia ekarri behar zuen, halabeharrez. Eta horixe egin dute Sagardo Egunaren antolatzaileek: Sagardo Egun Mundiala prestatu dute. Horretarako, munduko sagardo ezberdinak ekarri dituzte.

Munduan badira sagardo sortaile diren herrialde gehiago. Euskaldunak ez garela bakarrik, alegia. Sagardo mota ezberdinak daude, gainera. Ez dira guztiak gurean ekoizten denaren antzekoak. XXV. Sagardo Egunean, ordea, munduan zehar bidaia egiteko aukera izango dugu baina ez hegazkinez, sagardo ezberdinen bidez baizik.



SAGARDO MOTA EZBERDINAK DAUDE MUNDUAN

Berezitasunak berezitasun, guztiak dira sagardo. Errusia, Mexiko, Britainia... Guztiz ezberdinak diren herrialdeetan produktu berdina egiten da, sagardoa. Ezin da ukatu, hala ere, oso ezberdinak direla guztiak. Latatan, botilatan, garagar-do itxurarekin, freskagarrien antzera... Itxuraz, behintzat, ez dute zerikusirik.

Honakoak dira ekarriko dituzten sagardoak: "Yablochniy Spas" Errusiatik, "Exquitlan" Mexikotik, "Ruwet" Belgikatik, "La face cachée de la pomme" Kanadatik, "Le maître" Britainiatik, "Galega" Galiziatik, "Buznego" Asturiasetik eta Kantabrietik, beste behin ere, kofradiako partaideak etorriko dira.

Hauetako asko, hala ere, sagarkiak dira; ez dira sagardo naturala, trataturik baitaude. Dena den, kanpoko sagardo hauen alboan beste zenbait sagarki izango dira, bertakoak hauek. Sagardo Egunean ipiniko diren postuetan Iparraldean ekoizten diren patxaka eta sagarroi saltsa ikusi eta erosi ahal izango dira.

Sagardo Eguna, mundiala!

Mundu guztiko sagardoak ekartzeaz gain, beste zenbait arrazoi ditu aurtengo Sagardo Egunak mundiala izateko. Izan ere, mende erdia betetzen du egun honek. Egun ederra, atsegina eta, bereziki, partehartzailea izateko zenbait ekin-tza berezi antolatu dira aurtengoan. Eta mundialtasun hori beste zentzu batean ere betetzen da, mundu osoak baitu aurt-en lekua Sagardo Egunean: Txikien Sagardo Eguna prestatu da familia osoak jaiari parte har dezan.

Honez gain, Saizarrek ekoizten duen sagardo ospina eta sagardoza aurkituko dira Sagardo Egunean. Eta ezin ahaztu Sagarlanek ekoizten duen sagar-dultzea eta pasteurizatutako muztioa. Aurten, beraz, bertako eta kanpoko sagardoak eta sagarkiak dastatzeko aukera izango dugu. Mundiala izango da!